

XXXIX. Antzinako Musika Astean 11 kontzertu eta 12 jarduera izango dira

Kontzertuak irailaren 4tik 11ra bitartean egingo dira probintziako hainbat tokitan, eta lehenengoz egingo dira Arabako natura eremuan, dorre jauregietan eta baita Arabako Errioxako upeltegi ezagun batean ere

Aurreko ekitaldian baino hiru kontzertu eta parez pareko zortzi jarduera gehiago dira, eta erakunde nortasun berria dakar aurtengo Musika Asteak

Edizio honetako izen batzuk: La Ritirata, Antonio Serrano, Raquel Andueza & La Galanía, Cantoría, Artefactum, Ópera Omnia eta El Barroquista

Gasteiz, 2021eko uztailaren 28a. Arabako XXXIX. Antzinako Musika Asteak 11 kontzertu eta haien parez pareko 12 jarduera eskainiko ditu aurten probintziako hainbat tokitan eta, lehenengoz, Arabako natura eremuan; iazko ekitaldian baino 3 kontzertu eta parez pareko 8 jarduera gehiago dira. Kontzertuak irailaren 4tik 11ra bitartean emango dira. Astearen osagarri izango diren parez pareko jarduerak abuztuaren 31n hasiko dira, eta irailaren 13an bukatuko.

Gaur egin dute aurkezpena prentsaurrekoan Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko diputatuak eta Daniel Broncano Musika Astearen zuzendari artistiko berriak.

Ana del Valen iritziz, “Sailarentzat oso garrantzitsua zen kalitatezko jauzia egitea, Musika Astea genero horretako Europako jaialdi handien testuinguruan jartzen saiatzeko, eta uste dut Broncanoren ekarpenarekin hori lortzeko bidean gaudela”. “Izan ere, lehenengo aldia da Musika Asteak guztira 23 ekitaldi eskaintzen dituen, kontzertuak eta jarduerak kontuan hartuta, eta toki berriak bilatu dira; nabarmentzekoak dira naturan bertan dauden batzuk, dorre jauregiak eta baita upeltegi bat ere. Gainera, erakunde nortasun berria daukagu aurten, eta gurekin izango dugu datozen urteetan helburu horiek lortzeko. Hori guztia dela eta, oso pozik gaude”, erantsi du.

Daniel Broncanok esan duenez, “Maiz hitz egiten dugu memoria historikoaz, gehienbat azken hamarkadetako oraintsuko iraganean pentsatuz. Hala ere, iraganeko soinuak eta oihartzunak are aberatsagoak eta poliedrikoagoak dira, oraindik gaur egunera arte iristen diren musika historikoen lorratz luzean pentsatzen badugu. Arabako Antzinako Musika Astea 1982an sortu zen —gogorarazi du—, antzinako musika ez zedin izan iraganeko kontua bakarrik. Arabako Lurralde Historikoaren eremu liluragarria, 39 urte hauetan, nazioarteko panoramako figurarik aipagarrienen musika historikoen aurkikuntza, topaketa eta gozamenerako tokia izan da —nabarmendu du—. Eta hain ezohikoa eta gorabeheratsua izan den 2020. urtean, iraganeko aztarnekin harreman bizia izateak erraztu zigun begirada zorutik altxatzea, nor garen jakiteko ikuspegi zabal bat bilatzeko”, esan du, amaitzeko.

2021ean, Arabako Antzinako Musika Astearen 39. ekitaldiak 11 kontzertu eskainiko ditu irailaren 4tik 11ra bitartean. La Petite Ecurie haize taldearen soinuak izango dira lehenak Probintzia plazan, eta *El Barroquista* dibulgatzaileak emango du haien berri; Gorbeian ere joko du, Sarriko parketxean, naturaz gozatzea ere ahalbidetuko duen ekitaldi batean. Araban izango dira hainbat bakarlari eta talde garrantzitsu, hala nola Raquel Andueza sopranoa (Gebaratarren dorre jauregia), La Ritirata (kontserbatorioko auditoriuma) eta Cantoría (Erregeen Santa Maria eliza, Guardia). Lizarrako eta Logroñoako asteekin lankidetzan, Opera Omnia Santa Maria Katedralera ekarriko du besteak beste hango kaperak maisu izan zen Miguel de Irizarren musika profanoa. Artefactum-en Erdi Aroko musikak ardoari laudorio egingo dio Baigorri upeltegi bikainean.

Cross-over nota nazioarteko izar Antonio Serranoren eskutik eta harmonikatik etorriko da, bere *Bach y "Bach"* proiektuarekin, Daniel Oyarzabal eta Pablo Martín Caminero gasteiztarrak lagun dituela. Ensemble BREZZA gaztearen talentu liluragarriaz gozatzeko aukera izango da Santa Maria Katedralean. Aukera izango da, halaber, ustekabeko altxorak aurkitzeko, hala nola Done Bikendi Martiriaren elizako habe basoa, Fran Lópezen tiorbarekin; eta baita izarrei begiratzeko ere, esferen harmonia kontenplatzeko Gatzaga Buradongo dorre jauregian, Javier Armentia eta Joaquín Sevillarekin.

Parez pareko jarduerak: +Astea

Hamaika kontzertu horien inguruan, beste 12 musika jardueraz osatutako eskaintza zabala sortu dugu lehenengoz: +ASTEa. Jaialdiaren bokazio soziala sendotzeko, Gasteizko adinekoen bi egoitzatara eramango da musika. Arnasketa eta ahotsari buruzko lantegia egiteko aukera eskainiko da, Raquel Andueza sopranoarekin, eta berriazko saio bat egingo da COVID iraunkorra duten pazienteekin.

Jesus Guridi Kontserbatorioko ikasleek La Ritirata taldearen musika aholku adituak jasoko dituzte. Cantoría ahots taldeak beraiekin abesteko gonbidapena egingo dute parte hartzeko saio batean. Musika Astean, Luis XIV.aren gorteko musika bizitzari buruzko musika zinema iruzkinduaren zikloa ere izango da. Eta Ignacio Aldecoa Kultura Etxeko liburutegian musika historikoei buruzko informazio intereseko zentroa egongo da.

Erakunde nortasun berria

Arabako Antzinako Musika Asteak kartel, logo eta web orri berriak dakartza aurtengo edizioan. Azken biak, hemendik aurrerako ekitaldietan ere mantentzeko asmoz.

Web orrian argibide guztiak jaso dira, bai artistei eta kontzertuei buruzkoak, bai parez pareko jarduerari dagozkienak, eta batez ere sarrerak gordetzeko aukera eskaintzen du. Jarduerak doakoak dira, baina lekua gorde behar da. <https://ama-sma.kulturaraba.eus/es/hasiera>

KONTZERTUAK

- Irailaren 4an, 19:30ean: Harrotasun Barrokoa. La Petite Écurie & El Barroquista. Probintzia plaza, Gasteiz.
- Irailaren 5ean, 12:30etan: musika naturan. La Petite Écurie. Gorbeiaiko Parke Naturala. Sarriko parketxea.
- Irailaren 6an, 19:00etan: Birthay Party. Raquel Andueza eta Jesús Fernández Baena. Gebaratarren dorre jauregia.
- Irailaren 7an, 17:30ean: In Vino Veritas. Artefactum. Baigorri upeltegia.
- Irailaren 7an, 20:00etan: Mihi gaiztoak. Cantoría. Erregeen Santa Maria eliza, Guardia.
- Irailaren 8an, 19:00etan: Preludiatzearen artea. Brezza. Santa Maria Katedrala, Gasteiz.
- Irailaren 9an, 19:00etan: Gau jaia. Opera Omnia. Santa Maria Katedrala, Gasteiz.
- Irailaren 9an, 22:00etan: Esferen harmonia, Javier Armentia, Joaquín Sevilla, Edurne Aizpún. Gatzaga Buradongo dorre jauregia.
- Irailaren 10ean, 20:30ean: Bach&Bach, Antonio Serrano, Pablo Martín Caminero, Daniel Oyarzabal. Jesus Guridi kontserbatorioko auditoriuma, Gasteiz.
- Irailaren 11n, 12:00etan, 13:00etan eta 17:00etan: Tiorba basoan. Done Bikendi Martiriaren elizako habe basoa, Gasteiz.
- Irailaren 11n, 20:00etan: Händel&Telemann. La Ritirata. Jesus Guridi kontserbatorioko auditoriuma, Gasteiz. 19:00etan: ikasleen aurretiko kontzertua.

+ASTEA

- Abuztuaren 31n, 17:00etan: “Taller respira mejor”, Raquel Andueza. Ignacio Aldekoa Kultura Etxea.
- Abuztuaren 31n, 19:30ean: Eguzki Erregearen musika: Farinelli. Ignacio Aldekoa Kultura Etxea.
- Abuztuaren 31tik irailaren 13ra: “Murgildu antzinako musikaren hautatutako bibliografian eta diskografian”. Kultura Etxea.
- Irailaren 1ean, 11:00etan: “Taller respira mejor”, Raquel Andueza. Ignacio Aldekoa Kultura Etxea. COVID pazienteentzat.
- Irailaren 6an, 19:30ean: Eguzki Erregearen musika: Munduko goiz guztiak. Ignacio Aldekoa Kultura Etxea.
- Irailaren 7an, 11:00etan: Cantoría egoitzetan. Txagorritxu.
- Irailaren 7an, 12:15ean: Cantoría egoitzetan. Zadorra.
- Irailaren 7an, 19:30ean: Eguzki Erregearen musika: La Pasión del Rey. Ignacio Aldekoa Kultura Etxea.
- Irailaren 8an, 11:00etatik 13:00etara: parte hartzezko kantu lantegia. Cantoría. Ignacio Aldekoa Kultura Etxea.
- Irailaren 10ean: Massterclass. La Ritirata. Jesus Guridi kontserbatorioko auditoriuma.